



HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN HIRU URTEKO PLANA

2017 – 2020 IKASTURTEAK

HEZKUNTZA IKUSKARITZA E.A.E.





HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA, 2017-2018ko, 2018-2019ko eta 2019-2020ko IKASTURTEETARAKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN HIRU URTEKO PLAN OROKORRA ONARTZEN DUENA.

1.- SARRERA

2004-2005eko ikasturtetik aurrera era sistematikoan jaso da Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei, itxaropenei eta asebetetze-mailari buruzko informazioa. Ondorioz, Ikuskaritzak hobekuntzak sartu ditu bere funtzionamenduan eta, halaber, kalitatea kudeatzeko sisteman, ISO 9001:2008 arauaren bidez ziurtatua eta AENORREK egindako kanpo auditoriek egiaztatua, egin du aurrera. Gaur egun, bere prozesuak ISO 9001:2015 arau berriaren exijentzietara egokitzeko erronka du Hezkuntza Ikuskaritzak.

Gainera, eta ondorengo puntuen ondorioz, Hezkuntza Ikuskaritzaren lanak gaurko eredurantz eman ditu urratsak azken ikasturteetan:

- ikastetxeetan, ikuspegi global batekin eta hobetzeari laguntzera bideratutako ikuskatze-prozesuen bidez, esku hartzeko premia,
- ebaluazioaren eremuko jardueri eman zaien gero eta garrantzi handiagoa,
- Sailaren arau berriak, planak, programak eta proiektuak ezartzea dela-eta sartutako aldaketak,
- eskola-emaitzak hobetzeko eta hezkuntzaren helburuak lortzeko dauden baliabideak era eraginkorrean erabiltzeko gizartearen exijentzia,
- gero eta gehiago izatea beste administrazio-erakunde edo atal batzuetatik datozen jarduerak eta eskaerak,
- esku hartzeko protokoloak hobetzea,
- beste ikuskaritza batzuekin lankidetzan aritzeko eta Ikuskaritzaren dimentsio europarra sakontzeko prozesua sustatzea.

Hori guztia aholkularitza-, orientabide- eta informazio-lanei dedikazio handiagoa emateko exijentzia da Hezkuntza Ikuskaritzarentzat eta Hezkuntza Ikuskaritzari datorren hirurtekoari proposamen berriekin aurre egiteko aukera ematen dion oinarria da.

Bestalde, aurreko Hirurteko Plan Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren ekainaren 28ko 98/2016 dekretua (2016-07-04ko EHAA) argitara emanez, arau-xedapen guztiak berrikusi eta gaurkotu ziren. Abenduaren 19ko 15/2008 legea, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako zenbait irakaskuntza-kidego sortzeari buruzkoa,- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza ikuskarien Kidegoa sortu zen, besteak beste, lege horren bidez,- argitara eman zenetik, Ikuskaritzaren arloan EAEn argitara eman den lehen dekretua da hau.

Horregatik, Hirurteko Plan Orokorra indarrean dagoen aldian, duela gutxi argitara eman den araudian ezarritako antolaketa- eta funtzionamendu-alderdiak garatuko dira.

Plan Orokor horrek 2017-2018ko, 2018-2019ko eta 2019-2020ko ikasturteetarako Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduera-ildo nagusiak ezartzen ditu eta, horretarako, ondorengo elementuak ditu abiapuntu:

- Hezkuntza Ikuskaritzaren egitekoa, ikuspegia eta baloreak.
- Ikastetxeetan esku hartzeko Ikuskaritzak bere gain hartu duen eredia, ikastetxe horiek hobetzen laguntzeko.
- 2016-2017ko ikasturtean egindako hausnarketa estrategikoa.
- Plan hau indarrean dagoen aldirako Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoak.
- Aurreko Hiru Urteko Plan Orokorren memorian eta urteko planetan jasotako ondorioak.



HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

2017ko maiatzean egindako hausnarketa estrategikoan antolaketaren puntu indartsuak eta aukerak aztertu ziren. Hezkuntza Ikuskaritzaren puntu indartsuen artean, besteak beste, ondorengoak nabarmendu ziren:

- Ikuskaritzaren egitura eta antolaketa bera, arduren banaketa ordenatu bat sartzen duena.
- Kudeatzeko sistema bat, jarduerak ezagutu, garatu eta berorien jarraipena egiteko prozesua errazago egiten duena.
- Ikastetxeen eta beste zerbitzuen aldetik Ikuskaritzaren irudi positiboa izatea. Irudi positibo horrek erantzunak berehala eta eraginkortasunez ematea du oinarri.
- Ikuskaritza erreferentzia gisa ikusten da ebaluazioaren gaian.
- Ikuskaritzak harreman arinak ditu ikastetxeekin eta hezkuntza-erkidegoarekin.
- Hezkuntza-erkidegoko kideen eskubideak defenditzeko erreferentzia gisa ikusten da Ikuskaritza.
- Ikaskuntzaren praktika, ezagutza partekatua eta berdinen arteko aholkularitza.
- Plantilaren prestakuntza eta ezagutza.
- Lankidetzan aritzeko giroa eta harrera-prozesu on bat.
- Ikuskaritzaren perfila definitzeko era bat, perfil pertsonalak anitzak izateari lotua, existitzea.

Hezkuntza Ikuskaritzan aurkeztu ziren aukeren artean, ondorengoak nabarmendu ziren:

- Ebaluazioa gizartean hartzen ari den garrantziak ematen ditu Ikuskaritzak ebaluazioan esku hartzeko erraztasunak, barne eta kanpo ebaluazioen emaitzetatik abiatuta; horrela Ikuskaritzaren eginkizuna indartzen da, pertsona eta ikastetxeen ebaluazio-eragilea den aldetik.
- ISO 2015 arau berrira egokitzeak emango du kudeatzeko sistema berrikusteko aukera.
- Tresna informatikoen garapen eta bilakaerari esker, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduerak gero eta eraginkorragoak izango dira.
- Hezkuntza-sisteman gertatzen ari diren aldaketak, curriculum berria ezartzeko prozesua esate baterako; aldaketa horiek ematen diote Ikuskaritzari, berriztatzearen eragilea den aldetik, esku hartzeko aukera.
- LHren munduan jarduteko beste espazio batzuk agertzea; espazio horiek ematen diote Ikuskaritzari jarduera berriak egiteko aukera.
- Ikuskaritza hezkuntza-sistema hobetzeko prozesuan eragiteko gaitasuna duen erakunde gisa ikustea.
- Ikuskaritzaren plantilan hemendik gutxira gertatuko diren aldaketak pertsonen erreleboa prestatzeko eta pilatutako ezagutzari eusteko aukera bat dira.

Hirurteko Plan Orokor honek puntu indartsuak sustatu nahi ditu, baita ikusi diren aukerak aprobetxatu ere.

EGITEKOA ETA ESTRATEGIAK

Aurreko Hirurteko Plan Orokorra indarrean zegoenean, egin zen antolaketaren politika eta estrategia aztertu eta egokitzeko prozesua. Horretarako, 2014-2015eko ikasturtean landutako egitekoaren, ikuspegiaren eta baloreen berrikuspina egin zen eta hausnarketa estrategikoa egiteko jardunaldi bat gauzatu zen 2017ko maiatzean.

Ondoren gaurko formulazioa aurkezten da:

**EGITEKOA: ondorengo puntuek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Ikuskaritzaren egitekoa:**

1. Kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzeko prozesua sustatzea eta hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsonen eskubideak bermatzen laguntzea.
2. Ikastetxeak eta sistemaren gainontzeko elementuak kontrolatzea, ebaluatzea eta beroriei aholkularitza ematea, hobetzen laguntzeko, sistemaren ebaluazioetan parte hartzea eta hezkuntza-administrazioari, proposamenak egiteko balorazio teknikoen bidez, informazioa ematea.
3. Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketa eta berorren jarduera gauzatzeko prozesua hobetzea, pertsoneri eta ikastetxeei erantzun hobea emateko.

IKUSPEGIA: ondorengo helburuak ditu Ikuskaritzak:

1. Kalitateko hezkuntza bat jasotzeko ikasle guztien eskubidea eta hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubideak bermatzeko funtsezko elementu bihurtzea.
2. Hezkuntza-sistema hobetzeko prozesuan liderra izatea, etorkizunari begirako ikuspegiarekin eta ikastetxeen funtzionamendua eta programak eta hezkuntza- eta zuzendaritza-praktika ikuskatuz, ebaluatuz eta eraginkortasunez aholkularitza emanez.
3. Hobetzeko egiten duen ekarpenarengatik ikastetxeentzat, administrazioarentzat eta gizartearentzat erreferentea izatea eta sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa eta aholkularitza hezkuntza-administrazioari emateko lehentasunezko zerbitzu bihurtzea.
4. Etengabe eguneratzen diren profesional prestatuek, informatuek eta konprometituek osatuko dute. Profesional horiek era koordinatuan eta irizpide bateratuekin taldeka egiten dute lan eta berrizatzeko eta antolaketan parte hartzeko prozesuak sustatzen dituzte.
5. Ikastetxeetan eta hezkuntza-administrazioaren aurrean profesional eta etikoki aritzea, irizpide teknikoekin eta kanpoko presioei men egin gabe.

BALOREAK: profesionaltasuna, ondorengo baloretan oinarritua, da Hezkuntza Ikuskaritzako pertsonalaren portaera eta jarreraren funtsezko elementua:

1. Zuzentasuna, ardura, leialtasuna, begirunea eta enpatia.
2. Eraginkortasuna eta elkarrekiko konpromisoan oinarritutako talde-lana.
3. Autonomiaren eta irizpide libreen arabera jokatzeko, izpiritu kritiko eta autokritikoarekin.
4. Etengabe hobetzera bideratutako jarrera parte-hartzailea eta proaktiboa izatea.
5. Prestakuntza eta berriztapenaren aldeko inplikazioa eta konpromisoa izatea.



ESTRATEGIAK. Ondorengo jarduerak egiteko prozesuak optimizatzen saiatuko da Hezkuntza Ikuskaritza:

1. Haren funtzioetan aritzean hezkuntza-erkidegoko kide guztien eta Hezkuntza Administrazioako arduradunen premiei, itxaropenei eta eskaerei erantzuna ematea.
2. Ikastetxeen funtzionamendua eta beroriei eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea, ikastetxe horiek ezagutzearen ondorioz hobetzeko proposamenak eginez.
3. Hezkuntza Ikuskaritzari eta berorren funtzioen eremuan egiten dituen jardueri eragiten dieten legezko eta arauzko baldintzak betetzea.
4. Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzeen kalitatea hobetzea.
5. Era planifikatuan, koordinatuan eta taldeka lan egitea, agindutako lana denboretan eta ikuskarien artean orekaz banatuz.
6. Behar diren planen bidez Ikuskaritzako pertsonal guztiaren etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa sustatzea.
7. Hezkuntza Ikuskaritza barnean eta kanpoan komunikatzeko bideak hobetzea.
8. Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren berezko exigentzia eta premiei egokitzeko malgutasuna erakustea.
9. Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan behar diren aldaketak aurrera eramatea, nahi diren helburuak lortzeko ematen duten laguntza aztertuz, izan daitezkeen arriskuak identifikatuz eta behar diren hobekuntzak inplementatuz, prozesu horien eraginkortasuna, egitekoan, ikuspegiaren eta baloreetan eragin handiagoa dutenena batez ere, areagotze aldera.
10. Hezkuntza Ikuskaritzan lan egiten duten pertsonen aitortza sustatzea.
11. Lurralde Ordezkaritzetako arduradunekiko eta Hezkuntza Saileko zerbitzu desberdinekiko koordinazioa hobetzea.

Hirurteko Plan Orokor honek du Hezkuntza Ikuskaritzak formulazio berri honetara, zerbitzuak emateko makroprozesuari begira batez ere, egokitzeko egin beharreko jarduera berrantolatzearen ardura; izan ere, egitekoan azaldutako helburuei zuzenean arreta emateko antolatuko da makroprozesu hori.

IKASTETXEETAN EGIN BEHARREKO ESKU HARTZEAREN METODOLOGIA: IKASTETXEAK IKUSKATZEA.

Ikastetxeetan esku hartuz ematen dio Hezkuntza Ikuskaritzak, irakaskuntzaren kalitate eta zuzentasunaren faktorea izateko, hezkuntza-legeriak ematen dion ahalmenari erantzuna. Esku-hartze horrek hezkuntzarako eskubidea eraginkortasunez bermatzen lagundu behar du eta ikastetxeek kalitateko erantzun bat ematea sustatu behar du, ikasle guztiek ikasteko prozesuetan arrakasta izan dezaten.

Horregatik, ez du arau-kontrol hutsera mugatu behar; laguntza eman behar die ikastetxeei haien hezkuntza-proiektuak garatzeko prozesuetan eta, horretarako, hausnarketa eta Oautoebaluazioa egiteko prozesuak sustatuko ditu, kanpo ebaluazioaren prozesuan parte hartuko du eta ikastetxeen funtzionamendua eta ematen duten hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzeko proposamenak emango ditu.

Ikastetxeen ezaugarriak eta jarduera ezagutzea eta haien analisia eta balorazioa funtsezkoak izango dira, ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitutako jarduera eraginkorrak gauzatzeko eta ikastetxeek beren funtzionamendua eta eskola-erkidegoari eta, oro har, gizarteari eskaintzen dieten hezkuntza-zerbitzua hobetzeko lagungarri izango diren proposamenak egiteko orduan.



Horrek guztiak ikasturte bakoitzean hasiera ematen zaion ikuskatzeko eredu proaktibo bat eskatzen du; horretarako, ikuskari bakoitzak planifikatuko ditu ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzearen urteko helburuak, aurreko ikasturtean egindako jardueraren ondoriozko konklusioak, zirkunstantziak, antzemandako premiak eta Ikuskaritzaren urteko planetan jasotako proposamenak kontuan hartuta, eta helburuak zein mailatan lortu diren baloratuz, balorazioak eta hobekuntza-proposamenak ikastetxeari helaraziz eta, datorren ikasturteari begira, ikastetxean egin beharreko ikuskatzearen jarraipen egokia dela-eta gomendioak eta proposamenak eginez emango zaio prozesuari bukaera.

Ikuskatzeko eredu honek ikastetxeetan egiten diren Ikuskaritzaren esku-hartze guztiak ikuspegi global batetik, ikastetxean eta haren funtzionamenduan parte hartzen duten elementu eta faktore guztien elkarren arteko harremanetan eta osagarritasunean oinarritua, egina izatea eskatzen du.

Eredu hori laguntzeko, berorren sustatzearen eta jarraipenaren arduradunak, laguntza-argibide, orientabide eta materialak, *ikastetxearen koaderno*a esate baterako, eta behar den prestakuntza izango ditugu. (24. or.).

Gainera, ikuskatzea egiteko ikastetxeetan egindako jardueren ondorioetatik abiatuta, sistemaren ondorio orokorrak lortu eta hobekuntza-proposamenak egin beharko dira; ondorio eta hobekuntza-proposamen horiek erreferentzia izango dira Ikuskaritzaren jarduerak planifikatzeko eta Hezkuntza Administrazioari erabakitzeko-organoei informazioa eta aholkularitza emateko orduan.

Hirurteko Plan Orokor hori indarrean egongo den hiru ikasturteetan hezkuntza-ikuskatzearen eredu hau sustatzen eta beronetan sakontzen jarraituko dugu.

2.- HELBURU OROKORRAK

Hirurteko Plan Orokor honen helburuak selekzionatzeko, beste ikuspegi bat ezarri da, Ikuskaritzaren jardueren trazagarritasuna eta helburuen, jardueren, egitekoan adierazitako helburuen eta ikuspegiaren adierazitako nahien arteko koherentzia ikusgai egiteko asmoz.

Hirurteko Plan Orokor honekin ondorengo helburu orokorrak lortu nahi dira:

1. Ikuskaritzak ondorengo helburuak lortzeko eman beharreko laguntza hobetzeko prozedurak ezartzea:

- hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsonen eskubide eta betebeharrak, indarreko legeriak ezagutuak, errespetatuko direla bermatzea.
- esku-hartze kritiko eta aktibo baten bidez eskola-eremuko elkarbizitza hobetzea.

2. Kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzea sustatze aldera, ikastetxeei haien antolaketa eta funtzionamendua, programak, irakaskuntza-praktika, zuzendaritza-funtzioa eta gainontzeko elementuak hobetzeko lagungarri izango diren proposamenak eskaintzea.

3. Sistemaren ebaluazioetan parte hartzeari eta beste organismo eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruzko informazioa hezkuntza-administrazioari ematea, proposamenen bidezko balorazio teknikoaren bidez eta ikastetxeetan ikuskatzeak eginez.

4. Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketa, prestakuntza eta haren jardura aurrera eramateko prozesua hobetzea. Horretarako, hizkuntz normalkuntzarako, kudeaketa-, berriztapen-, parte hartzeko eta antolaketa ebaluatzeko prozesuak sustatuko dira, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzuna emateko.

3.- HELBURUAK GAUZATZEKO ESKU HARTZEAREN FUNTSEZKO ILDOAK.

Aurreko atalean adierazitako helburuak lortzeko behar den jardura-eremua dira Hirurteko Plan Orokor honen esku-hartzearen funtsezko ildoak.

Hiru ikasturteetan Hirurteko Plan Orokorraren esku-hartzearen ildo nagusiei lotutako jarduerak Plan honen I. eranskinean adierazten dira.

Ondoren helburu nagusien eta beroriei lotutako oinarritzko ildoaren arteko harremana eta ildo bakoitzaren edukiaren azalpen labur bat aurkezten dira.



1. HELBURU NAGUSIA	<p>1. Ikuskaritzak ondorengo puntuei egin beharreko ekarpena hobetzeko prozedurak ezartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsonen eskubide eta betebeharrak, indarreko legeriak ezagutzen dituenak, errespetatzeko bermea. - esku-hartze kritiko eta aktibo baten bidez eskola-eremuko elkarbizitza hobetzea.
ELKARTUTAKO FUNTSEZKO ILDOAK	<p>3.1. Arau-kontrolerako jarduerak. 3.2. Eskola-giroaren jarraipena.</p>

3.1. Arau-kontrolerako jarduerak.

Indarrean dagoen hezkuntza-legeria orok hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsonen eskubide eta betebeharrak errespetatuko direla bermatzea du helburu. Hezkuntza-jarduera eremu desberdinetatik antolatzen da, eskolatzetik, ikasleak onartzetik, haien premia espezifikoek eman beharreko arretatik ebaluaziora, hurrengo kurtsora igarotzera edo titulaziora arte. Funtsezkoa da, beraz, hezkuntza-prozesu guztiak ikastetxe guztietan legerian ezarritakoaren arabera gauzatzea eta Hezkuntza Ikuskaritzak du horien guztien jarraipena eta kontrola egitearen ardura.

3.2. Eskola-giroaren jarraipena: hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak errespetatuko direla bermatzeko elkarbizitza kudeatzea.

Hezkuntza-printzipio eta baloreak bete eta aplikatuko direla zaintzearen ardura du, besteak beste, bere funtzioen artean Hezkuntza Ikuskaritzak, hezkuntza-erkidegoko sektore desberdinei aholkularitza eta orientabidea emanez. Ildo horretan, ikasleen osotasun fisiko eta morala eta identitatea eta duintasun pertsonala errespetatuko direla bermatzeari emango dio, batez ere, lehenetsuna. Halaber, emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasunaz arduratuko da.

Eskola-jazarpenaren kasuen edo elkarbizitzaren kontrako beste edozein portaeraren jarraipena egiten jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak.

Aurreikuspenen arabera, elkarbizitza- eta hezkidetzaren planen jarraipena egingo da, baita plan horiek ikastetxeetan praktikan jartzen direla egiaztatu ere. Halaber, Hezkuntza Sailburuordetzak sustatutako "Bizikasi" plana gauzatzeko moduaren jarraipena egingo da.

Era berean, Hirurteko Plan Orokorren lehen ikasturtean sustatuko da, gerta daitezkeen babesgabetasun- eta tratu txarren, jazarpen- eta haur eta nerabeen arteko sexu-abusuen egoerak direla-eta, hezkuntza-eremuan esku hartzeko egin beharreko prebentzio- eta jardura-protokoloa (2016ko abenduaren 15ean argitara emandakoa), tokian-tokiko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan, hedatzeko prozesua.

2. HELBURU NAGUSIA	<p>2. Antolaketa eta funtzionamendua, programak, irakaskuntza-praktika, zuzendaritza-funtzioa eta gainontzeko elementuak hobetzeko lagungarri izango diren proposamenak eskaintzea ikastetxeei, kalitateko hezkuntza-sistema bat lortze aldera.</p>
ELKARTUTAKO FUNTSEZKO ILDOAK	<p>3.3. Ikastetxearen premien arabera esku hartzea 3.4. Ebaluazioaren aldeko kultura sustatzea ikastetxeetan 3.5. Pertsonen ebaluazioa 3.6. Laguntza ematea aldaketa metodologikoak ikastetxeetan ezartzeko prozesuan</p>

3.3. Ikastetxearen premien arabera esku hartzea.

Ikastetxe bakoitza etengabe ikuskatuz, dauden egoera eta haien puntu indartsuak eta hobetu beharreko arloak zeintzuk diren ezagutzen du erreferentziako ikuskariak. Ikuskariak lankidetzan jardun behar du ikastetxeekin, hobetzeko moduko arloen analisisian parte hartuz eta lortzeko estrategiak proposatuz.



3.4. Ebaluazioaren aldeko kultura sustatzea ikastetxeetan.

Ikuskariek, ikastetxeak ikuskatuz, ebaluazioaren aldeko kultura sustatuko dute, ikastetxeak eta hezkuntza-sistema hobetzeko prozesuetan funtsezko elementua den aldetik. Diagnostiko-ebaluazioaren ardura hezkuntzaren arloko sail eskudunak eta ikastetxeek dutela kontuan hartuta, ebaluazio horien ondoriozko informazioa ikastetxeek eta Hezkuntza Administrazioak hartuko dute kontuan, besteak beste ikasleei eman beharreko arreta hobetzera eta ikasleek oinarrizko gaitasunak menperatuko dituztela bermatzera zuzendutako neurri eta programak antolatzen. Halaber, emaitza horiek, irakasteko prozesuen eta irakaskuntza-praktikaren ebaluazioarekin batera, emango dute alde aurreko kurtsoetan egindako jarduerak analizatu, baloratu eta berrorientatzeko aukera.

Hezkuntza Ikuskaritzak du ikasleak eta irakaskuntza ebaluatzeko prozesua aurrera eramatearen ardura. Ikuskariek, ikastetxeetara egindako bisitetan eta banakako ebaluazioen emaitzak ezagutu ondoren, zuzendaritza-taldearekin bilduko dira, ikastetxearen emaitzak aztertu eta baloratzeko.

Diagnostiko-ebaluazio bat egin da 2016-2017ko ikasturtean eta, horren ondorioz, diagnostiko-proba horien emaitzen ondoriozko hobekuntza-helburuen jarraipena egin behar du, besteak beste, Hezkuntza Ikuskaritzak Hirurteko Plan Orokor honen hasieran; izan ere, emaitza horiek 2017-2018ko ikasturterako Urteko Planetan sartuta egon beharko dute.

Ikastetxe bakoitzak urteko planetan proposatutako hobekuntza-jardueretatik haratago, eta sistema osoari begira, 2015eko Pisa Ebaluazioan lortutako emaitzak kontuan hartu beharko ditu Hezkuntza Ikuskaritzak, emaitza okerrenak izan ziren gaitasunei begira batez ere.

Hirurteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldiaren, 2019-2020ko ikasturtean beste diagnostiko-ebaluazio bat egitea aurreikusten da. Zirkunstantzia horren ondorioz, proba hori aplikatzeko prozesuan kontrolatu beharko du aipatutako ikasturte horretan Hezkuntza Ikuskaritzak. Gainera, kanpo ebaluazio mota horretan parte hartzen duten ikastetxeen hobekuntza-helburuen jarraipen bat, urteko planak aztertuz, egiten du ikasturtez ikasturte Ikuskaritzak.

3.5. Pertsonen ebaluazioa.

3.5.1. Ikastetxeak hobetzen laguntzeko, zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa.

Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa egiten zortzi ikasturte eman ditu Hezkuntza Ikuskaritzak eta funtzio hori hobetzeko laguntza ematea du ebaluazio horrek helburu, argitara eman diren ebaluazio-prozesuari buruzko aginduak erreferentziatzen hartuta.

Ebaluatzeko prozesu hori lau urteko aldietan egiten da eta zuzendaritza-funtzio horretan hobeto aritzeko (prestakuntza-ebaluazioa) laguntza ematea du helburu nagusia, baita aldi horren bukaeran identifikatutako dimentsioak (bildumazko ebaluazioa edo azken ebaluazioa) behar adina garatu diren egiaztatzea ere.

Indarrean dagoen dekretuaren arabera selekzionatutako zuzendarien hiru belaunaldien lehen aldiaren ebaluazioa egin ondoren eta Lanbide Heziketako ikastegi integratuetako zuzendaritzak ebaluazio-prozesuan sartu direla kontuan hartuta, lortutako esperientzia baloratzetik abiatuz berrikusi behar da prozedura. Gainera, 2018-2019ko ikasturtean inplementatzen hasiko den hirugarren ebaluazio-aldiaren diseinua egin beharko da. Hirurteko Plan Orokorra indarrean dagoen aldiaren zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko araudia gaurkotu beharko da.

Zuzendaritza-funtzioa selekzionatu eta ebaluatzeko prozesuetan esku hartzen jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak, zuzendaritza-karguei haien funtzioetan hobeto aritzen laguntzeko; horrela ikastetxeek hobeto funtzionatzeko laguntza emango da eta ikasle bakoitzaren hezkuntza-emaitzak hobekuntza izango dira. Horretarako, laguntza- eta jarraipena egiteko lanak egiten jarraituko da, kontrastea eta hausnarketa sustatuko dira, aholkularitza emango da eta ebaluatutako zuzendaritza-taldeentzako hobekuntza-proposamenak emango dira.



3.5.2. Hobeto aritzen laguntzeko irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa.

Prozesuak eta emaitzak hobetzeko ebaluazioa funtsezko elementua dela dioen ikuspegitik abiatuta eta zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko Hezkuntza Ikuskaritzak aurrera eramandako ereduaren bidez lortutako esperientzia kontuan hartuta, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioari eman behar zaiola hasiera planteatzen da. EAEko Hezkuntza Ikuskaritza proiektu europar batean, 2015-2016ko eta 2016-2017ko ikasturteetan egindako Erasmus + programan, izan da liderra eta, proiektu europar hori bururatzeko, irakaskuntza-ebaluaziorako gida europar bat eta irakasleen autoebaluaziorako Moodle ikastaro bat sortu dira. Hirurteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldian eta aipatutako proiektuan lortutako esperientzian oinarrituta, irakaskuntza-funtzioa ebaluatzeko eredu bat eramango da aurrera eta eredu horrek ondorengo oinarritzko helburuak sartuko ditu:

- irakasleen praktika profesionala hobetzen laguntzea, ikasleei kalitateko erantzun bat emango zaiela bermatzeko,
- irakasleak beren funtzioetan zuzen ari izango direla bermatzea,
- profesionalki hobeto aritzeko prestakuntza-premiak antzematea.

Horretarako, irakaskuntza-perfil profesionalaren definizioa eta ebaluatzeko prozeduraren diseinua, irakaskuntza-lanbideari esleitzeko moduko gaitasunen arabera, gauzatuko ditu Hezkuntza Ikuskaritzak.

Irakasleen ebaluazioari eta pertsonala selekzionatzeari lotutako alderdi global edo partzialei aurre egingo dieten prozesu guztiei koherentzia emango dien eta haien gida izango den erreferentzia-markoa izan behar du eredu horrek.

Gainera, gaitasunetan oinarritutako *hezkuntza- eta pedagogia-ereduaren markoan* aurreikusitako ildo estrategikoaren arabera eta ebaluazioaren emaitzen ondorioz, unibertsitateekin, irakasleen hasierako prestakuntzarako, eta irakasleen prestakuntzan eskuduntzak dituzten erakundeekin, etengabeko prestakuntzarako, lankidetzan aritzeko prozesua sustatuko da.

Irakasleentzako lan-eskaintza publikoak gainditzen dituzten funtzionarioen praktika-fasea ebaluatzeko prozesuan parte hartzen jarraituko da eta aurreko hirurteko planean hasiera eman zitzaien *gela bisitatzea eta autoebaluazioa sustatzea* jardueretan sakonduko da.

3.6. Ikastetxeetan aldaketa metodologikoak ezartzen laguntzea.

Sistemaren ebaluazio desberdinen, nazioarteko ikerketa pedagogikoen eta pedagogia- eta hezkuntza-marko berri bat argitara eman izanaren ondorioz, gizarteak planteatzen dizkien erronka berriei arrakastaz aurre egin ahal izateko aldaketak sustatzeko premia dute ikastetxeek, edukien transmisio hutsean oinarritutako eskolatik gaitasunen garapena sustatuko duen hezkuntza batera pasatzeko urratsari begira batez ere.

Gaitasunen araberako ikuspegia gelara eramaten bada, gelara eramate horrek exigentzia desberdinak planteatzen dituen aldaketa metodologiko bat dakar, ondorengoak esate baterako: eginkizunen arabera erregulariki lan egitea, jakintzak mobilizatu beharreko baliabideetat jotzea, arazoak konpontzera edo proiektuen arabera bideratutako ikaskuntza bat, ebaluatzeko beste era batzuk, ... Irakasleak bitartekariaren, gidaren edo laguntzailearen rola betetzen du eta, horretarako, "eginkizunak" edo ikaskuntza-egoerak diseinatzeko gai izan behar du; eginkizun edo ikaskuntza-egoera horiei esker, estrategia intelektualak mobilizatu ahal izango dira, ezagutzak aplikatu ahal izango dira eta ikasleen jarduera sustatu ahal izango da.

Hezkuntza Ikuskaritzak, berritzeguneekin koordinazioan, ibilbide honetan lagundu behar die ikastetxeei eta, horretarako, proposamen metodologiko berriak hurrengo hirurtekoan ikastetxeen lagin desberdinetan ezartzeko prozesuaren jarraipena egingo du eta jarraipen horren bidez lortutako informazioaren ondoriozko jarduerak egingo ditu.



3. HELBURU NAGUSIA	3. Sistemaren ebaluazioetan parte hartu dutela eta beste organismo eta erakunde batzuekin lankidetzan ari izan direla Hezkuntza Administrazioari jakinaraztea, ikastetxeetan egindako ikuskatsetik abiatuz eta proposamenen bidezko balorazio teknikoaren bidez.
ELKARTUTAKO FUNTSEZKO ILDOAK	3.7. Garapenaren jarraipena eta Saileko programen emaitzak 3.8. Lankidetzan aritzeko beste jarduera batzuk

3.7. Garapenaren jarraipena eta Saileko programen emaitzak.

Ikastetxeak hobetzen laguntzeko aurreko puntuetan azaldutako jardueraz gain, Hezkuntza Sailak planteatutako programa desberdinen jarraipena egingo du Hezkuntza Ikuskaritzak, baita programa horien ebaluazioan parte hartu ere, programa horietan planteatutako helburuak lortu diren mailatik ondorioak ateratzeko eta erabakiak hartzeko informazio nabarmena emanaz.

3.8. Lankidetzan aritzeko beste jarduera batzuk.

Jarduera desberdinak aurrera eramateko prozesuan Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jarraituko du Hezkuntza Ikuskaritzak, irakasleak atxikitzeko prozesuetan, lan-eskaintza publikoen epaimahaietan parte hartuz, Batxilergoko aparteko sarietan, lekualdatze-lehiaketek buruzko barematzeetan, ... prozesu horiek kalitate eta eraginkortasunez gauzatzeko eta berorietan parte hartzen duten pertsonen eskubideak bermatzeko.

4. HELBURU NAGUSIA	4. Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketa, prestakuntza eta haren jarduera aurrera eramateko era hobetzea. Horretarako, hizkuntza normalkuntzarako, kudeatzeko, berritzeko, parte hartzeko eta antolaketa berritzeko prozesuak sustatuko dira, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzuteko.
ELKARTUTAKO FUNTSEZKO ILDOAK	3.9. Hartzaileei eman beharreko erantzuna hobetzea: bisitak, txostenak 3.10. Euskara erabiltzeko plana 3.11. Ikuskaritzaren antolaketa 3.12. Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa 3.13. Beste instituzio batzuekin lankidetzan aritzea eta dimentsio europarrean sakontzea 3.14. Berriztapena zaintzea

3.9. Hartzaileei eman beharreko erantzuna hobetzea: bisitak, txostenak

Ikastetxeak hobetzeko prozesuarekin zuzenean lotuta dauden jardueren kopuru handia egin du azken ikasturteetan Hezkuntza Ikuskaritzak. Jarduera horiek balio erantsi bat dute eta, beraz, erronka bat dira ikuskarien garapen profesionalerako.

Horregatik, bisiten eta txostenen kalitatea segurtatu behar da, haien helburua behar bezala bete dezaten; izan ere, ikastetxeei eta Ikuskaritzaren jardueren hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzeko izango dira, zuzenean, lagungarri.

Helburu hori lortzeko, ez da nahikoa txostenak edo bisitak epean egiten direla kontrolatzea; haien edukiaren kalitatea ziurtatzeko aukera ematen duten estandarrak definitu behar dira, haien helburua beteko dutela bermatze aldera. Egindako txostenen lagin baten jarraipena egingo da eta bisiten kalitatea landuko da, praktika onei eta hobetzeko moduko alderdiei buruzko ondorioak lortzeko asmoz. Jarraipen horren ondorioak prestakuntza-saioetan helaraziko zaizkie ikuskariei eta saio horietan Ikuskaritzako pertsonen parte-hartze aktiboa sustatuko da.



3.10. Euskara erabiltzeko plana

Ahozko komunikazioak, idatzizkoak eta telematikoak *Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilpena Normaltzeko Plan Orokorrean (2013-2017)* eta gauza daitezkeen geroagoko planetan xedatutakora egokitzeko, ondorengo jarduerak beharrezkoak izango dira:

- euskararen erabilpena, maila idatzian batez ere, hobetzea, HE2 egiaztatu duten arren zailtasunak dituzten haientzat,
- euskara erabiltzeko 2016-2017ko ikasturtean onartutako protokoloa aurrera eramatea,
- Euskara Erabiltzeko Planean aurreikusitako kalitateko komunikazioak sustatzea, testu zuzen, egoki eta argien bidez.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntzarako IRALE programak dituen aukerak erabiltzea, haren lanaren ezaugarri bereziek ezartzen dituzten mugen barruan.

3.11. Ikuskaritzaren antolaketa

Hirurteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldian, antolatzeko eredua berrikustea aurreikusten da, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko asmoz. Prozedurak egokitu eta bideak gauzatuko dira, Ikuskaritza guztiaren inplikazioa eta parte-hartzea, antolaketa-egitura desberdinen bidez, sustatzeko asmoz. Ondorengo alderdiak berrikustea planteatzen da:

- Ikuskaritzaren jarduerak kudeatzeko orduan ikuskari guztiak parte hartzea,
- lan-taldeen egitura gaurkotzearen bidez zonaldeetako jardueren arduradunen lidergoa sustatzea. Lan-taldeen Ikuskaritza Nagusiaren erreferente bat eta lurralde bakoitza ordezkatzeko kide bat izango dituzte eta kide horietako bat taldeko arduraduna izango da. Gainera, zonalde bakoitzeko arduradun bat izendatuko da. Ekipoen lurralde eta zonalde mailako arduradunen arteko koordinazioa indartuko da. Zonalde mailakoek beren zonaldeetan egin beharreko jarduerak koordinatzeko eta prestatzeko lanak egingo dituzte. Gainera, lankidetzan ari izango dira zonalde burutzeekin, zonaldeetan azpiprozesu bakoitzaren jardueren jarraipena egin eta kontrolatzeko prozesuan,
- lurraldeetan zonalde burutzen koordinazioa hobetzea,
- kudeatzeko sistema berrikustea, Ikuskaritzaren funtzionamendua hobetzeko eta UNE-EN ISO 9001:2015 arauak exijitutako baldintzetara egokitzeko. Hirurteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldian, kudeatzeko sisteman sakonduko da, zerbitzua hobeto emate aldera. Gainera, ondorengo jarduerak aurreikusten dira:
- azpiprozesuen sailkapena eta izena berrikustea eta Ikuskaritzaren helburuetarako funtsezkotzat jotzen direnak selekzionatzea.
- Funtsezko azpiprozesuen dokumentazioa, fluxua eta jardueren kontrola gaurkotzea.
- Ikuskaritzaren atari berria garatu eta finkatzea.
- Ikuskaritzaren jarduerak Ikuskaritzaren aplikazio informatikora (V-92) apur-apurka sartzea.
- Ikuskaritzaren jarduerak, Bikaintasunerako Euskal Fundazioko (Euskalit) kide laguntzailea den aldetik, gauzatzea.
- EFQM eredurantz urratsak emanez kalitatea kudatzeko sisteman sakontzea.
- Kanpo (horizontala eta bertikala) eta barne komunikazioaren hobekuntza.
- Prozesuen mapa berriaren eta Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren, V92ren, egituraren arteko sinkronizazioa.

3.12. Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa

Hobetzeko mekanismo indartsuenetako bat da ebaluazioa. Ildo horretan, Hezkuntza Ikuskaritzari legez agindutako funtzioa betetzen duten pertsonen ebaluazioa garapen profesionala eta, berorrekina batera, zerbitzua bera hobetzeko bitartekoetako bat da.



Gaurko ebaluazio-eredua ekainaren 28ko 98/2016 dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzarena, definituta dago eta ikuskaritza-funtzioan aritzeko behar diren gaitasun tekniko, profesional, sozial eta etikoak ditu erreferentetzat. Ikuskaritzaren funtzioetan aritzeko era hobetzeraz, batez ere, bideratutako ebaluazio bat da eta erabilgarritasun, bideragarritasun, jabetza (modu legal eta etikoa) eta zehaztasunaren (emaitza nabarmen eta fidagarriak) estandarren arabera egiten da. Ikuskaritza-funtzioaren indarreko gaitasun-matrizea berrikusi eta gaurkotuko da, hobetzeko.

Ebaluazio honen ikuspegitik, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzua hobetzeak bi alde ditu:

- Ikuskaritza zerbitzuan lan egiten dutenen banakako ebaluazioaren ondorioz gertatzen den hobekuntza,
- Ikuskaritzako kide guztien ebaluazioaren emaitzak izatean eta, beraz, zerbitzu guztiaren puntu indartsuak eta hobekuntza-arloak antzematearen ondorioz gertatzen den zerbitzuaren hobekuntza.

Halaber, eta aipatutako dekretuak xedatzen duenez, aurrera eramandako lanak ebaluazio positiboa izatearen menpe egongo da zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko edo ez luzatzeko aukera; horregatik, ebaluazioa egiten jarraituko da Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunetan ari diren pertsonen, zerbitzu-eginkizun horiek luzatzeko ezinbesteko baldintza den aldetik. Era berean, gainontzeko zerbitzuaren ebaluazioa ere egingo da.

3.13. Beste instituzio batzuekin lankidetzan aritzea eta dimentsio europarrean sakontzea.

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak, koordinatzaile gisa, Erasmus Plus programaren KA2 'EOSTLAP' jardueran arrakastaz parte hartu ondoren, Hirurteko Plan Orokor hau indarrean dagoen aldiaren Hezkuntza Ikuskaritzaren dimentsio europarrean sakontzeko prozesua sustatuko da, gaitasun profesionalak areagotzeko asmoz. Horretarako, SICIn (*Standing International Conference of Inspectorates*),- Europar Batasuneko herrialde eta eskualdeetako Hezkuntza Ikuskaritzak elkartzen diren erakundea da,- sartzeko eskaera egitea aurreikusten da.

Halaber, EAEko Hezkuntza Ikuskaritzako taldeak nazioarteko gertakari desberdinetan parte hartzea aurreikusten da, baita hurrengo hirurtekoan aurkeztuko diren Erasmus programaren KA2 jardueran berrietan kide gisa sartzea ere.

Beste herrialde batzuetako kide eta hezkuntza-sektoreekiko lankidetzan sakontzea ez ezik, hezkuntza-ikerketari eta prestakuntza pedagogikoari lotutako beste hezkuntza-ikuskaritza eta antolaketa batzuekin informazioa eta esperientzia trukatzeko prozesua ere indartuko da: Unibertsitateak, ISEI-IVEI ...

3.14. Berriztapena zaintzea

Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeak eta sistemaren emaitza globalak hobetzen laguntzeko jarduerak aurrera eramanez ahal izateko, arreta berezia eman behar zaie munduan gauzatzen ari diren joera pedagogiko berriei, baita teknologia berriak,-irakatsi eta ikasteko prozesuari zuzenean aplikatuak eta administrazioek dituzten datuak kudeatzeko erabiltzen direnak,- garatzeko prozesuari ere, ikastetxeak hobetzeko proposamenak egiteko behar den ezagutza izateko asmoz. Helburu horrekin Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeko kideek osatutako lan-talde baten jarduerak sustatuko da.



Hau adierazi behar dugu: funtsezko jarduera-ildo horiek aurrera eramateak ez du Ikuskaritzako pertsona guztiek ildo guztiei buruzko jarduerak egin behar dituztenik esan nahi; izan ere, ahal den guztietan planteatutako helburuak lortu ahal izateko estrategiak finkatuko dira, nahiko informazioa ematen duten laginaren bidezko jardueren bidez, edo lan-talde espezifikoak sortuko dira, esku hartzeko oinarritzko zenbait ildori aurre egiteko.

4.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN PROZESUAK

Prozesuen mapa eta MP02 makroprozesuaren egitura, Ikuskaritzaren aurreko Hirurteko Plan Orokorren zerbitzuak identifikatu eta ematea, 2013-14ko Urteko Planean aldatu ziren. Aldaketa horren ondorioz, 2014ko otsailean Ikuskaritzaren Kalitate Eskuliburua gaurkotu zen.

Prozesuen mapa, azpiprozesuen sailkapena eta izena, berrikusteko 2017-18ko ikasturtean egingo dena alde batera utzita, ondoren makroprozesu eta prozesuen egitura adierazten da, gaur egun indarrean dagoen prozesuen maparekin batera ere.

Ondorengoak dira Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemari erantzuna ematen dioten makroprozesuak:

- MP 01.- Estrategia, planifikazioa eta antolaketa.
- MP 02.- Zerbitzuak identifikazioa eta ematea.
- MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.
- MP 04.- Agirien kudeaketa.
- MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.
- MP 06.- Neurketa, analisia eta hobekuntza.

Ikuskaritzaren estrategia MP 01 “estrategia, planifikazioa eta antolaketa “ makroprozesuaren bidez eramaten da aurrera eta haren konkezioak ematen du zerbitzua emateko eta agiri eta baliabideak kudeatzeko prozesuak orientatu eta zuzentzeko aukera.

Zerbitzua emateko prozesuak MP 02 “zerbitzuak identifikatu eta ematea “ makroprozesuaren bidez eramaten dira aurrera eta makroprozesu hori da zerbitzuaren izateko arrazoia, haren jardueraren helburu nagusia. Makroprozesu horretan sartutako zerbitzuak, halaber, azpiprozesu batzuetan sailkatzen dira, Hezkuntza Ikuskaritzak eman beharreko zerbitzuen edo kasu bakoitzean arreta eman nahi dioten zerbitzu horien hartzaile motaren arabera.

MP 02 “zerbitzuak identifikatu eta ematea “ makroprozesu horren barruan ondorengo 4 azpiprozesuak sartzen dira:

- PR Ikastetxeek eman beharreko hezkuntza-erantzuna hobetzen laguntzea. Ikastetxeen edota pertsonen ebaluazioari, batez ere, lotutako azpiprozesuak. Ikuskaritzak informatu beharko dituen urteko planak hobetzeko helburuetan agertuko diren ikastetxeak hobetzeko premiak zehazteko erabili behar direnak. Informe horien emaitza administrazioa bezalako erakundeei edo interesatuei berei helaraziko zaie.
- PR Arau-kontrola /Eskubide eta betebeharrak bermatzea. Hezkuntza-erkidegoko kide guztien eskubide eta betebeharrak errespetatzea bermatzeari lotutako azpiprozesuak, titulazioei, eskola-ordutegia eta egutegia betetzeari, hezkuntza-premia espezifikoiei eman beharreko arretari, ikasleen eta irakaskuntza-pertsonalaren absentismoaren kontrolari, ... begira araudia beteko dela kontrolatzearen bidez. Halaber, Hezkuntza Ikuskaritzari edonola iristen zaizkion eskaera eta jakinarazpenei eraginkortasunez erantzuteko behar diren jarduerak prozesu honetan sartuko dira.
- PR Gatazkak konpontzea. Elkarbizitza. Ikastetxeen elkarbizitza hobetzeari lotutako azpiprozesuak dira. Elkarbizitza-planak egiteko kontrola eta aholkularitza ez ezik, eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena, portaera zuzentzeko prozedurak, ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoak, funtzionario publikoen diziplina-erregimena eta babesgabetasunari buruzko protokoloa ere sartzen dituzte.



- PR Programen jarraipena. Sistemaren helburuak. Lanbide Heziketako Sailburuordetzan (Ethazi, txandakako prestakuntza duala) eta Hezkuntza Sailburuordetzan (Hauspoa, Hamaika Esku, Bizikasi, Irakurle Plana, prestakuntzarako ekimen globala, hezkidetzarako eta genero-indarkeria prebenitzeko gida-plana, ...) hezkuntza-sistemaren helburuak lortzeko ikastetxeek laguntza eraginkorragoa emateko martxan jartzen diren programa espezifikoaren jarraipenari lotutako azpiprozesuak dira.




Prozesu horietan parte hartzeaz gain, Administrazioan lankidetzan aritzeko beste jarduera batzuk egingo ditu Hezkuntza Ikuskaritzak, prozedura desberdinetan, Hezkuntza Saileko beste unitate batzuen ardurapean, parte hartuz.

Jarduera hauek horrela sailka daitezke:

- 1) Lankidetzan aritzeko eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak. Jarduera horien konplexutasunarengatik, Ikuskaritzak berak gainontzeko azpiprozesuak bezala definitu eta planifikatu behar ditu.
- 2) Hezkuntza Saileko arduradunek eskatutako txostenei erantzuna ematen dieten jarduerak. Atal honetan Ikuskaritza Zerbitzuaren edozein hartzaileraren eskariz sor daitezkeen txosten guztiak sartzen dira, baita egindako ebaluazio-, kontrol- eta aholkularitza-jardueren ondorioz Ikuskaritzaren beraren ekimenez sor litezkeenak ere.
- 3) Parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak, haien jabea Ikuskaritza ez bada (epaimahaietan, batzordeetan, ... parte hartzea).


Halaber, Ikuskaritza kudeatzeko prozesuan integratuta dauden prozesuak azpiprozesuetan sailkatzen dira eta azpiprozesu horiek Urteko Planetan konkretatzen dira. Azpiprozesuak ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzan aritzeko funtzioen arabera sailkatu eta kodetu dira. Hala ere, hausnarketa estrategikoaren ondorioz, sailkapen eta kodetze hori, prozesuen mapa berrira egokitzeko, aldatzea aurreikusi da. Horregatik, Hirurteko Plan Nagusi hau indarrean dagoen aldiaren ondorengo urratsen arabera gaurkotuko da:

- 1) UNE EN ISO 9001:2015 arau berrira egokitzeko antolaketak eman behar duen urratsaz baliatuz, azpiprozesu bakoitzak ematen duen balioaren azterketa bat egingo da, haien kopurua gutxitzeko asmoz. Horiek horrela, egitekoan adierazitako helburuei zuzenean lotutako balioa ematen dutenak bakarrik izango dira azpiprozesuak. Gaur dauden gainontzeko azpiprozesuak jardueren zerrenda bat izango dira eta Ikuskaritzaren informazio dokumentatuaren atala izango dira, baina prozesuen mapatik at.
- 2) Indarrean jarraitzen duten azpiprozesuak dauden prozesuetan sailkatuko dira.
- 3) Azpiprozesuetako talde arduradunek bakoitzaren arriskuak analizatuko dituzte, puntu indartsuak sakontzeko eta aukerak aprobeztatzeko asmoz.
- 4) Kalitate Batzordeak ateratzen den zerrendaren arabera gaurkotu beharko du Kalitate Eskuliburua.



SARRERAK:
 Arau-errekerimenduak
 Jarduera-planak
 Sailaren eskaerak
 Kanpo eskaerak
 Ofiziozkoak
 Etab ...

PRODUKTUAK:
JARDUERAK / TXOSTENAK
 Ebaluazioa
 Kontrola
 Eskubideak bermatzea
 Aholkularitza
 Sistemaren informazioa
 Eskaei arreta ematea
 Etab ...





5.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA

Ikuskaritza aritzeko markoak eta metodologiak etengabe garatu beharreko eduki profesional handiko prestakuntza behar dute eta horrek informazio- eta prestakuntza-jarduerak etengabe planifikatzea exijitzen du. Jarduera horietan berdinaren arteko ikaskuntzak toki nabarmena izan behar du. Lurralde eta zonaldeetan azpiprozesu desberdinetako arduradunak funtsezkoak dira ikaskuntzarako, lan-taldeak, kasuak aztertuz, ... ezagutzak eta partekatutako esperientziak partekatuzera eramaten duten jarduera kooperatiboak diseinatzearen bidez.

Hasierako prestakuntzari eta EAeko Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzura sartzen diren ikuskarien tutorizatzeari, harrera-prozesuaren bidez, emango zaie arreta berezia. Ikuskaritzaren kasuan, prozesu hau bereziki nabarmena da; izan ere, ikuskari guztiek irakaskuntza-funtzioa eta, kasu askotan, zuzendaritza-funtzioa bete dituzten arren, esperientzia profesionalak asko aldatzen dira.

Ikuskaritzaren prestakuntza eta garapen profesionala hobetzeko prozesuari eman nahi zaio Hirurteko Plan Orokor honetan garrantzia, garapen profesionalaren zutabe nagusietako bat baita prestakuntza. Prestakuntza hori aurrera eramateko modu desberdinak sustatuko dira:

- ikuskariak plan honetan planifikatutako jarduerak egiteko lagungarri izango diren gaitasun-elementuak eskaini nahi ditu planari lotutako prestakuntzak. Prestakuntza instituzionala deritzona da eta, normalean, ikasturtean, ostiraletako bilkuretan, egiten da. Prestakuntza instituzionala parte-hartzailea izatea proposatuko da; horiek horrela, eta ahal den guztietan, bileraren zati handi bat lan praktikoari eskainiko zaio, talde txikietan edo prestakuntzan inplikatzeko dakarten beste modalitate batzuen bidez. Prestakuntza mota horretan Ikuskaritzak egin beharreko esku-hartzearen kalitatea handitzeko bideratutako prestakuntza-jarduerari emango zaie lehentasuna, Ikuskaritzak hartzaile desberdinei eman beharreko erantzuna hobetzeko estrategia gisa (esku hartzeko oinarritzko ildoan 4.4. puntua),
- prestakuntza instituzionalaren osagarri gisa, bateratzeari, esku-hartzea aurrera eramateko erari buruzko eztabaida profesionalari eta planifikatutako tresnak erabiltzeari eskaintzen zaizkien informazio- eta prestakuntza-saioak Ikuskaritzaren lanaren beste zutabeetako bat dira, ematen baitute esku-hartzeetan erabili beharreko irizpideak bateratzeko aukera. Prestakuntza mota hori Urteko Plan bakoitzaren azpiprozesu esanguratsuenen jardueraren hasieran gauzatuko da,
- euskararen erabilpena sustatzeari dagokionez, IRALE programaren aukerak, Ikuskaritzaren lanak dituen mugen barruan, erabiliko dira. Zehatzago esanda, liberazio mugatuko ikastaro espezifikoak antolatuko dira, baita Saileko Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan aztertuko diren beste aukera batzuk ere,
- bestalde, izaera zientifikoko, teknikoko, profesionaleko eta elkargoari eta elkarte edo sindikatuei lotutako gertakizun kolektiboetara joateko erraztasunak emango zaizkie ikuskariari. Jarduera horietan parte hartzeko, ikuskari nagusiak eman behar du derrigorrean baimena, Ikuskaritzako lurralde buruaren oniritziarekin. Txostenak edo jakinarazpenak aurkeztea, mahai inguruetan parte hartzea .. bezalako ekarpenak egin behar dituzten kideen eskaerei emango zaie lehentasuna. Bestalde, gertakizun horietara joateko baimena emateak eskuratutako ezagutza plantilako gainontzeko kideei transferitzeko jardueretan, ezartzen diren prozeduren bidez, parte hartzeko konpromisoa ekarriko du.

Zonalde mailako taldeen koordinazioa garapen profesionala ahalbidetzeko beste moduetako bat da eta, horregatik, oreka bat izan behar du prestakuntza instituzionalari eta zonalde mailako bilerekin eskaini beharreko denboraren artean. Zonaldeetan kasuak aztertzea garapen profesionalerako prozedura ona da.



Asebetetzea neurtzeko inkestetan Hezkuntza Ikuskaritzaren prestakuntza-premiei buruz jasotako emaitzen arabera, ondorengo alderdiei emango zaie lehentasuna:

- aplikazio informatikoak, erabilpena eta funtzionamendua, V92ren erabilpenean sakontzea, ikastetxeen aplikazioak, ikuskarrien lanari aplikatutako Informazio eta Komunikazio Teknologiai,
- prestakuntza juridikoa, administrazio-prozedura, kasu praktikoak garatzea,
- hezkuntza-legeria. Araudi berria eta berorren garapena,
- programazioa eta gaitasunen araberako ebaluazioa,
- ebaluazioa (irakaskuntza-funtzioa, zuzendaritza-funtzioa, diagnostikoa, ...),
- Ikuskaritzaren planak garatzeari zuzenean lotutako alderdiak,
- irakasleen titulazioak
- euskara,
- elkarbizitza,

Prestakuntza-jarduera horiek Hezkuntza Ikuskaritzari prestakuntzari esleitzen zaion aurrekontua izango dute eta, ikuskari nagusiak horrela erabakitzen duen kasuetan, derrigorrezkotzat joko dira.

6.- HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA

6.1. ANTOLAKETA

Lurralde Burutzek zuzendutako Ikuskaritzako Lurralde Planekin batera aurrera eraman eta osatuko da Urteko Planetan konkretatzen den Ikuskaritzaren Plan Orokor hau; izan ere, Ikuskaritzako Lurralde Plan horiek, behar izanez gero, Zonalde Burutzek egiten dituzten ekarpen espezifikoak sartuko dituzte. Ikuskaritzako Lurralde Plan horiek, gutxienez, ondorengo atalak sartuko dituzte:

- Helburuak (bakarrik Urteko Planarenak ez badira).
- Ikastetxeak ikuskariei esleitzea.
- Zaintzen planifikazioa.
- Aurrera eraman beharreko jardueren lurralde arduradunak izango diren ikuskariak izendatzea.
- Lurralde Burutzak beharrezkotzat jotzen dituen beste batzuk.

Ikuskaritzako kideek beren erreferentziako ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea Urteko eta Lurralde Planetan zehazten denaren menpe dago. Edonola ere, ikastetxeetan egiten den jarduera derrigorrean ikuskatu behar du ikuskari bakoitzak eta, ikastetxe horietan intzidentzia nabarmenik gertatuz gero, ahalik eta azkarren eman behar die horren berri lurralde burutzei. Informazio hori berehala helarazi behar diete lurralde ordezkariari eta ikuskari nagusiari lurralde burutzek.

Ikuskaritzaren eragina erreferentziako ikastetxeetan handiagoa izango dela ziurtatzeko asmoz zehaztu denez, erregimen orokorreko irakaskuntzak ematen dituen esleitutako ikastetxe bakoitza bisitatu beharko du, hiru aldiz gutxienez, ikuskariak eta bisita horietan landutako gaiak eta ondorio esanguratsuenak *ikastetxearen koadernoan* jasota utzi beharko ditu.

Ildo horretan, ikasturte bakoitzaren hasieran hasierako bisita bat egingo zaio ikastetxe bakoitzari. Bisita horri esker, ikuskariak izango du ikastetxearen egoera ezagutzeko edo ezagutza hori gaurkotzeko, behar diren hobekuntza-proposamenak egiteko eta urteko esku-hartzearen helburuak definitzeko aukera.

Jarduera horiek beste zonalde batzuetara joatea eskatzen badute, Lurralde Burutzaren baimena izan beharko dute.

Gaixotasunarengatik edo beste arrazoi batzuegatik zonalde buru bat aldi baterako ez badago, indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituen ikuskari batek beteko ditu haren funtzioak.



6.2. IKASTETXEAK IKUSKARIEI ESLEITZEA

Hirurteko Plan hau aurrera eramaten den urteetan, zonalde bakoitzeko ikastetxeak ikuskariei esleitzeko irizpideak konkretatu beharko dira. Irizpide horiek hartzeko orduan, hezkuntza-ibilbideak eratzen dituzten ikastetxeak ikuskari berari esleitu behar izatearen printzipioa hartuko da kontuan, indarreko legeriak xedatutakoaren arabera.

Legeri hori aldatu bitartean, esleitzeko irizpideak ondorengoak izango dira:

1. Erreferentziako ikuskari bakarra izango da ikastetxeko, ikastetxe horrek ematen dituen etapak eta mailak alde batera utzita; dena den, hori ez da izango zonalde bakoitzean ikastetxeak behar adina ezagutzeko oztupoa eta, ezagutza horri esker, beste ikuskari batzuek izango dute esleitutakoak ez diren beste ikastetxe batzuetan esku hartzeko aukera, urteko planen helburuei erantzuna emateko edo beste premia batzuentatik. Gainera, zerbitzu-premiengatik, esleitutakoak ez diren ikastetxeetan noizbehinka jarduerak egiteko eskaera egin ahal izango diote ikuskari nagusiak edo Lurralde Burutzak edozein ikuskariri.

2. Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten ikastetxeetan esperientzia profesionala duten ikuskariei esleitzeko zaizkie, batez ere, haien kudeaketa Prestakuntza eta Ikaskuntza Zuzendaritzaren menpe dagoen ikastetxe publiko edo pribatuak. Ikastetxe horien kopuruaren eta zonaldeko ikastetxe guztien arabera, zonalde horretako beste ikastetxe batzuk esleitu ahal izango zaizkie ikuskari horiei, heziketa-zikloen kopuru nabarmena dutenak batez ere.

3. Oreka bat egon behar du zonalde bakoitzeko ikuskariek, ikastetxeei begira, dituzten lan-kargak banatzeko orduan. Horretarako, Lurralde Burutzek ondorengo zirkunstantziak hartuko dituzte kontuan:

- Ikuskari bakoitzak dituen ikastetxe publikoen, itunpekoen eta pribatuen kopurua.
- Irakasle /Ikastetxeko ratioa haietako bakoitzean.
- Ikastetxeen eta Ikuskaritzaren egoitzaren arteko distantzia geografikoa.
- Bereziki konplexuagoak diren edo jarduera sakonago bat planifikatu den ikastetxeak.
- Prestakuntza arautua eta ez arautua, arratsaldean ematen diren Batxilergoa eta heziketa-zikloak edo Helduen Hezkuntza dituzten ikastetxeak.

4. Zonalde Burutzei eta Ikuskaritza Nagusiak edo Lurralde Burutzek Urteko Planak aurrera eramateko dedikazio espezifikoko lanetan aritzeko izendatutako ikuskariei esleitutako ikastetxeen kopurua gutxituko dute Lurralde Burutzek.

5. Ikastetxeak ikuskariei esleitzeari dagokionez, ondorengo irizpideak definitzen dira:

- Ikuskari bakoitzari hezkuntza-ibilbide bereko ikastetxeak esleitzeari emango zaio lehentasuna.
- Irakaskuntzan edo ikuskaritza-funtzioan izaten den esperientzia eta ikuskariren prestakuntza hartuko dira kontuan ikastetxe mota desberdinak esleitzeko orduan.
- Ahal den neurrian, ikastetxeetan egiten den jarduerak urtebete baino gehiago irauten badu, ikuskari berberak jarraituko du ikastetxe horiekin.
- Berritzeguneak eta lurralde eremuko ikastetxeak Zonalde Burutzei, batez ere, esleitzeko zaizkie.

6. Ikastetxeak esleitzeko lehen aipatutako irizpideak errespetatuz, herri txikietako ikastetxe guztiak ikuskari bakar bati esleitzeko zaizkio.

7. Ikasturtean, gaixotasunarengatik edo beste arrazoi batzuentatik, ikuskariren batek huts egiten badu, haren ikastetxeak zonalde horretako beste ikuskari edo ikuskari batzuei emango zaizkio /zaizkie aldi horretan, tokian-tokiko Zonalde Burutzaren proposamenez.

6.3. ZAINZTA EGUNEAN KANPO ESKAEREI EMAN BEHARREKO ARRETA ANTOLATZEA. KOORDINAZIO BILERAK.

Ikastetxeei eta, oro har, publikoari derrigorrean eman beharreko arretak zonalde bakoitzaren egoitzan egunero ikuskariek egotea eskatzen du. Horregatik, astean zaintza-egun bat, gutxienez, ezarriko da ikuskari bakoitzarentzat eta ikastetxeei jakinarazi beharko zaie.



Zaintza-egunean kanpo eskaera horrela definitzen dugu: edozein ikuskariri edo zerbitzuak Hezkuntza Ikuskaritzan ematen dituen administrazio-pertsonalari ahoz edo idatziz egiten zaien edozein iradokizun, galdera, kexa edo erreklamazio.

Ikastetxeei buruzko kanpo eskaera gehienei erreferentziako ikuskariak arreta ematea komeni da eta, horregatik, une horretan eskaerari arreta eman ezin dioten, bulegotik at egoteagatik edo egiten ari diren jarduera eteterik ez dutelako, ikuskariak ordezkatzeko egoeratzat jo behar da zaintza.

Telefonoz edota eskatzaileak Hezkuntza Ikuskaritzaren bulegoak bisitatz jaso daitezke eskaerak. Administrazio-pertsonalak edota zaintzako ikuskariak ematen badiote eskaerari arreta eta eskaera hori premiazkoa edo inportantea ez bada, kontsulta-orri edo ohar baten bidez jakinaraziko zaio erreferentziako ikuskariari. Orri edo ohar horretan eskaeraren datuek eta egin zuen pertsonarekin harremanetan jartzeko informazioak jasota agertu beharko dute. Eskaera premiazkoa edota inportantea bada, zaintzan dagoen ikuskariari jakinaraziko dio administrazio-pertsonalak. Ikuskari horrek eskatzailea hartuko du, berehala emango dio gertatutakoaren berri Lurralde Burutzari, eskaera kontsulta-orrian erregistratuko du eta orri hori, geroago, erreferentziako ikuskariari emango dio, eskaera ezagutu dezan eta behar bezalako erantzuna eman diezaion. Kontsulta-orri horiek ez dute administrazio-prozedura bati hasiera emateko balio. Kasu horietan, Lurralde Burutzek emandako argibideen arabera jokatu du zaintzako ikuskariak eta eskaera, behar izanez gero, intzidentzien programa informatikoan erregistratuko du.

Zonalde Burutza bakoitzak antolatuko ditu asteko zaintzak eta, horretarako, egun bakoitzean hezkuntza-maila desberdinetan ezagutza espezifikoak dituzten bi ikuskari (Eibarren izan ezik), gutxienez, zaintzan egotea bermatuko du. Halaber, haien ikuskariari esleitutako zaintza-eguna zein den jakinaraziko die ikastetxeei eta premiazkoak ez diren eskaera eta informazioak egun horretan bideratzeko eskatuko du.

Ikuskari bakoitzari esleitutako zaintza-eguna errespetatuko da. Justifikatutako arrazoiren batengatik ezin bada, tokian-tokiko Zonalde Burutzari emango zaio horren berri eta Burutza horrek zaintza hori ordezkatzeko era erabakiko du.

Ikuskaritzako taldeen koordinazioa eta prestakuntza segurtatzeko asmoz, asteko beste egun bat ezarriko da, ostirala zehatzago esanda, Ikuskaritzako kide guztiak beren egoitzan egon daitezten edo deitzen diren prestakuntza-saioetara joan daitezten.

6.4. TALDEAK ETA LAN BATZORDEAK

Indarreko legerian aurreikusita dauden Lurralde Arteko eta Lurralde Koordinazio Batzordeez gain, Plan hau indarrean dagoen aldian ondorengo talde eta lan-batzordeek ere funtzionatuko dute:

Kalitate Batzordea

Ikuskari nagusiaren menpe dago Batzorde hau, hiru lurraldeetako ikuskariek osatzen dute eta Ikuskaritzak egiten dituen jarduera guztiak etengabe hobetzea izango du helburu. Ondorengo funtzioak izango ditu:

- Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemaren dokumentazio guztia kontrolatu, berrikusi eta gaurkotzea.
- Jarduerak gauzatzeko prozesuan sistemaren errekerimenduei buruzko informazioa talde desberdinei aholkularitza ematea.
- Ikuskaritzaren kalitatea kudeatzeko sistemaren aplikazioan proposatzen diren aldaketa eta jarduerak ikuskari nagusiari helarazteko, analizatu eta, behar izanez gero, onartzeko.
- Kalitatea kudeatzeko sisteman edo ikuskari nagusiaren aginduz esleituta duen beste edozein.



Euskara erabiltzeko batzordea.

Batzorde hau ikuskari nagusiaren menpe dago eta lurralde bakoitzeko ikuskariek osatuko dute. Ebazpen honen 3.10.atalean ezarritakoa betetzea izango du helburu eta ondorengo funtzioak beteko ditu:

- Ikuskaritza Nagusiarekin lankidetzan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak finkatzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren estilo-eskuliburua egitea.
- Elebitan erredaktatzeko lana zuzendu eta orientatzea.
- Euskararen araudiari eta erabilpen egokiari buruzko prestakuntzan liderra izatea.
- Ikuskari nagusiak agindutako beste edozein.

Berdintasun planerako batzordea.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ikastetxeek hartzen dituzten neurrien jarraipenaren ardura ematen diete 1/2004 legeak, 4/205 legeak eta 2/2006 lege organikoak hezkuntza-ikuskaritzaren zerbitzuei.

Hezkidetzarako eta genero-indarkeria prebenitzeko gida-planaren "Saileko zerbitzu estrategiko bakoitzean (Berritzegunea, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Ikuskaritza, ISEI-IVEI) hezkidetzaren eta genero-indarkeria prebenitzearen arduradunak izango diren pertsonen izendapena " atalean ondorengo puntuak adierazten dira:

"Aipatutako zerbitzuek, jarduera-eremu desberdinetan, hezkidetzari eta genero-indarkeria prebenitzeari emango diete lehentasuna eta, horretarako, prestakuntza izango dute, koordinazioa sustatuko da eta hezkidetzaren, berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloan prestakuntza izatea exijitzen duen lanpostu bat izango da eremu bakoitzean.

"Gainera, hezkidetzaren eta prebentzioaren ereduaren oinarritutako eskola nola gauzatzen den aztertu eta horren jarraipena eggingo du ISEI-IVEI". Hezkuntza Ikuskaritzak hartuko du jarraipen horretan parte.

Aurrekoa betetzeko, Berdintasun Batzorde bat eratuko da eta haren kideek ondorengo funtzioak izango dituzte:

- Ikuskaritza, hezkidetzarako eta genero-indarkeria prebenitzeko gida-planaren helburu estrategiko bakoitzean, inplikaturak dagoen jarduerak betetzea sustatzea,
- emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasuna sustatze aldera Sailak proposatutako jarduerak ikastetxeek aurrera eramaten dituztela ikuskatzeko prozedurak ezartzea,
- berdintasunaren arloko prestakuntza Ikuskaritzan antolatzea,
- hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren oinarritutako eskolaren eredu nola gauzatzen den aztertzeko eta eredu horren jarraipena egiteko ISEI-IVEIrekin lankidetzan aritzea,
- ikuskari nagusiak agindutako beste edozein.

Ikastetxeak ikuskatzeko ereduaren sustatzeaz arduratuko den batzordea.

Ondorengo funtzioak izango ditu:

1. Ikastetxeen hobekuntzari eragingo dion hezkuntza-ikuskatzearen eredu bat sustatzea eta ikastetxeetako erreferentziako ikuskariek hezkuntza-ikuskatzearen arabera jardutearen ardura beren gain hartzea sustatzea.
2. Ikuskariei orientabide, tresnak eta prestakuntza eskaintzea, kontrolatzeko, ebaluatzeko eta aholkularitza emateko ikastetxeetan egiten dituzten esku-hartzeak errazago integratzeko, sustatu nahi den eredu proaktiboaren arabera.
3. Erreferentziako ikuskariek ikastetxeak ikuskatzeko urtero helburuak planteatzeko, ikuskatze horren ondorioak balorazioak emateko eta balio erantsia emango duten proposamenak egin eta ikastetxeei helarazteko laguntza ematea.



4. Informazioaren eta EAeko ikastetxe bakoitzean egindako ikuskatzearen ondorioen ondoriozko transferentzia erraztu eta koordinatzea, informazioa eta hezkuntza-sistemari buruzko ondorioak lortzeko. Informazio eta ondorio horiei esker, Administrazioako erabakitze-organoei informazioa eman eta hobekuntza-proposamenak egin ahal izango dituzte.

Berriztapena zaintzeaz arduratzen den batzordea.

Batzorde honek transferentzia egiteko aukera identifikatu eta baloratuko du eta zerbitzuaren jardura eta hezkuntza-sistemari egiten dion ekarpena hobetzera bideratutako berrikuntzak jarriko dit martxan, ondorengo puntuetatik abiatuz:

- zerbitzuko jardueren jarraipena eta analisia,
- zerbitzuko kideen eta kanpo eragileen ekarpen eta proposamenak,
- Barne eta kanpoko prestakuntzari buruzko jardunaldietan, prestakuntza- eta praktika onak trukatzeko jardunaldietan parte hartuz, beste instituzio batzuetan lankidetzan aritzeko bileran ... jasotako informazioa.

Prozesu eta azpiprozesuen taldeak.

Urteko Planetako prozesu edo azpiprozesuen planifikazioaren eta jarraipenaren talde arduradunek ondorengo ardurak izango dituzte:

- Esleitutako prozesua edo azpiprozesua diseinatu eta planifikatzea.
- Prozesua edo azpiprozesua gauzatzeko planifikaziorako eta lan-metodologiarako diseinu bat proposatzea, Lurralde Arteko Batzordean onartzeko.
- Prozesua edo azpiprozesua aurrera eramateko argibide operatiboak eta behar den dokumentazioa hedatzea.
- Prozesua edo azpiprozesua lurraldeetan gauzatzeko garapenean liderra izatea eta garapen hori koordinatzea.
- Behar den txostena egitea, prozesua edo azpiprozesua bera gauzatzeko era ebaluatuz eta egin daitezkeen hobekuntza-jarduerak proposatuz.
- Ikuskari nagusiak agindutako beste edozein.

6.5. ASTEKO AGENDA

Ikuskari-funtzioaren izaerak eta haren jardueraren ezaugarri bereziek ematen dute lana malgutasunez antolatzeko aukera; antolaketa horretan ikuskari bakoitzak egin beharreko jarduerak planifikatu behar ditu eta horri buruzko informazioa emango dio zonalde buruari. Hezkuntza Ikuskaritzak astean egin beharreko jarduerak banaka eta zonalde mailan errazago planifikatzeko eta, halaber, zerbitzuak ikasturtean egindako jarduerari buruzko informazioa izateko, ikuskari guztiek derrigorrean bete behar dute Ikuskaritzaren aplikazio informatikoaren (V92) agenda, aurreikusitako jarduerak planifikatzeko tresna den aldetik; agenda horretan programatutako bisita eta irteerak sartu behar dira. Geroago, planifikazio hori egindako jardueren errealitatera egokituko da.

7.- HIRURTEKO PLAN OROKORRAREN EBALUAZIOA

Hirurteko Plan Orokorra ikasturte bakoitzaren bukaeran ebaluatuko diren Urteko Planetan konkretatzen da. Hirurteko Plan Orokorraren ebaluazioa azken Urteko Planaren ebaluazioaren barruan egingo da, hiru Urteko Planen ebaluazioak eta beraiek berrikusteko txostenak kontuan hartuz.



Horregatik, Urteko Planen ebaluazioetan eta Ikuskaritza Nagusiak egindako sistemaren berrikuspenetan lortutako analisi eta ondorioak kontuan hartuko dira Hirurteko Plan Orokorra ebaluatzeko orduan.

Hirurteko Plan Orokorraren ebaluazioa hirugarren Urteko Planaren azken memorian jasota geratuko da eta, halaber, sistemaren berrikuspena izango da.

2017ko irailaren 15a

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Maite A'.

Maite Alonso Arana
Hezkuntza sailburuordea



I. eranskina: 2017-2020ko Hirurteko Plan Orokorraren helburuak, oinarriko ildoak eta jarduerak

HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	17-18ko JARDUERAK	18-19ko JARDUERAK	19-20ko JARDUERAK	
Ikuskaritzak ondorengo gaiei egin beharreko ekarpena hobetzeko prozedurak ezartzea: - hezkuntza-erkidegoa osatzen duten pertsonen eskubide eta betebeharrak, indarreko legeriak aitortuak, errespetatuko direla bermatzea. - esku-hartze kritiko eta aktibo baten bidez eskola-eremuan elkarbizitza hobetzea.	Arau-kontrolerako jarduerak.	Irakasleen prestakuntzan ordutegia betetzea. Batxilergoko eskola-egutegia. Dokumentazio akademikoa. Arauak betetzen ez diren kasuen jarraipena egitea. Kanpoko proben kontrola.	Arauak betetzen ez diren kasuen jarraipena egitea. Titulazioak. Kanpoko proben kontrola.	Arauak betetzen ez diren kasuen jarraipena egitea. Kanpoko proben kontrola.	
	Eskola-giroa.	Bizikasi Plana ezartzeko prozesuaren jarraipena egitea. Elkarbizitza-planen analisia (ikastetxeen lagina). Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena egitea.	Bizikasi Plana ezartzeko prozesuaren jarraipena egitea. Elkarbizitza-planen analisia (ikastetxeen lagina). Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena egitea.	Bizikasi Plana ezartzeko prozesuaren jarraipena egitea. Elkarbizitza-planen analisia (ikastetxeen lagina). Eskola-jazarpenaren kasuen jarraipena egitea.	
Antolaketa eta funtzionamendua, programak, irakaskuntza-praktika, zuzendaritza-funtzioa eta gainontzeko elementuak hobetzen laguntzeko proposamenak ikastetxeei eskaintzea, kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzeko prozesua sustatzeko.	1 Ikastetxearen premien arabera esku-hartzea egitea.	Aurreko ikasturtean koadernoan adierazitako hobekuntza-proposamenen jarraipena egitea.	Aurreko ikasturtean koadernoan adierazitako hobekuntza-proposamenen jarraipena egitea.	Aurreko ikasturtean koadernoan adierazitako hobekuntza-proposamenen jarraipena egitea.	
	2 Ebaluazioaren aldeko kultura sustatzea.	Ikastetxearen Urteko Planaren eta memoriaren analisia, (Lagina, definitutako irizpideen arabera)	Ikastetxearen Urteko Planaren eta memoriaren analisia, (Lagina, definitutako irizpideen arabera)	Ikastetxearen Urteko Planaren eta memoriaren analisia, (Lagina, definitutako irizpideen arabera)	Ikastetxearen Urteko Planaren eta memoriaren analisia, (Lagina, definitutako irizpideen arabera)
		Eskola-emitzak: eskola-emitzei buruzko hausnarketa eta analisia sustatzea.	Eskola-emitzei buruzko hausnarketa eta analisia sustatzea.	Eskola-emitzei buruzko hausnarketa eta analisia sustatzea.	Eskola-emitzei buruzko hausnarketa eta analisia sustatzea.
		Kanpo ebaluazioetan esku hartzea. Hausnarketa eta analisia sustatzea.	Kanpo ebaluazioetan esku hartzea. Hausnarketa eta analisia sustatzea.	Kanpo ebaluazioetan esku hartzea. Hausnarketa eta analisia sustatzea.	Kanpo ebaluazioetan esku hartzea. Hausnarketa eta analisia sustatzea.
		Kalitatea Hezkuntzan ikastetxeen sarearekin lankidetzan aritzea.	Kalitatea Hezkuntzan ikastetxeen sarearekin lankidetzan aritzea.	Kalitatea Hezkuntzan ikastetxeen sarearekin lankidetzan aritzea.	Kalitatea Hezkuntzan ikastetxeen sarearekin lankidetzan aritzea.
	3 Pertsonen ebaluazioa:	Zuzendaritza-funtzioa: zuzendariak selekzionatzeko prozesua. Ikastetxe bakoitzaren egoeraren araberako ebaluazioa. Proiekturik ez duten zuzendaritzetan autoebaluazio-prozesuak sustatzea.	Zuzendaritza-funtzioa: zuzendariak selekzionatzeko prozesua. Ikastetxe bakoitzaren egoeraren araberako ebaluazioa. Proiekturik ez duten zuzendaritzetan autoebaluazio-prozesuak sustatzea.	Zuzendaritza-funtzioa: zuzendariak selekzionatzeko prozesua. Ikastetxe bakoitzaren egoeraren araberako ebaluazioa. Proiekturik ez duten zuzendaritzetan autoebaluazio-prozesuak sustatzea.	Ikastetxe bakoitzaren egoeraren araberako ebaluazioa. Proiekturik ez duten zuzendaritzetan autoebaluazio-prozesuak sustatzea.
Irakaskuntza-funtzioa: Irakaslearen perfila egitea. Irakasleentzako LEPen ondoriozko praktika-faseen ebaluazioa.		Irakaskuntza-funtzioa: Irakaslearen perfila egitea. Irakasleentzako LEPen ondoriozko praktika-faseen ebaluazioa.	Irakaskuntza-funtzioa: Irakasleentzako LEPen ondoriozko praktika-faseen ebaluazioa.	Irakaskuntza-funtzioa: Irakasleentzako LEPen ondoriozko praktika-faseen ebaluazioa.	



HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	17-18ko JARDUERAK	18-19ko JARDUERAK	19-20ko JARDUERAK
Antolaketa eta funtzionamendua, programak, irakaskuntza-praktika, zuzendaritza-funtzioa eta gainontzeko elementuak hobetzen laguntzeko proposamenak ikastetxeei eskaintzea, kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzeko prozesua sustatzeko.	4 Ikasleen gaitasunak garatzeko prozesua sustatuko duten aldaketa metodologikoak ezartzeko prozesuan laguntzea: programazioak (planifikazioa, metodologia eta ikasleen ebaluazioa).	Ikasleen gaitasunak hobetzera bideratutako aldaketak ikastetxeetan ezartzeko prozesuaren jarraipena (ikastetxeen lagina).	Ikasleen gaitasunak hobetzera bideratutako aldaketak ikastetxeetan ezartzeko prozesuaren jarraipena. (Ikastetxeen lagina). Jarraipen horretan jasotako informazioaren ondoriozko jarduerak.	Ikasleen gaitasunak hobetzera bideratutako aldaketak ikastetxeetan ezartzeko prozesuaren jarraipena. (Ikastetxeen lagina). Jarraipen horretan jasotako informazioaren ondoriozko jarduerak.
Sistemaren ebaluazioetan parte hartzeari eta beste organismo eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari buruzko informazioa hezkuntza-administrazioari ematea, proposameneren bidezko balorazio teknikoaren bidez eta ikastetxeetan egindako ikuskatzetik abiatuta.	1 Saileko programaren garapena eta emaitzak (Hamaika Esku, Hauspoa, Duala, Ethazi, IGF, Plan Irakurlea, Bizikasi, hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa, ...).	Programen garapeneren jarraipena egiteko prozesua. Jarraipen horren ondorioz Administrazioarentzat egin beharreko txostenak.	Programen garapeneren jarraipena egiteko prozesua. Jarraipen horren ondorioz Administrazioarentzat egin beharreko txostenak.	Programaren garapeneren jarraipena egiteko prozesua. Jarraipen horren ondorioz Administrazioarentzat egin beharreko txostenak.
	2 Lankidetzan aritzeko beste jarduerak batzuk: atxikipenak, Batxilergoko Bikaintasun Plana, Barematzea, EAU, ...	Lankidetzan aritzeko jarduerak gauzatzea. Ikuskaritzak egin beharreko lankidetzak jardueren identifikazioa.	Lankidetzan aritzeko jarduerak gauzatzea. Zerbitzu eskudunekin koordinatzeko prozedurak ezartzea, jarduerak horien eraginkortasuna hobetzeko.	Lankidetzan aritzeko jarduerak gauzatzea. Zerbitzu eskudunekin koordinatzeko prozedurak ezartzea, jarduerak horien eraginkortasuna hobetzeko.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketa, prestakuntza eta haren jardueraren garapena hobetzea, hizkuntza normalkuntzako, kudeaketa-, berriztapen-, parte hartzeko eta antolaketa ebaluatzeko prozesuak sustatuz, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzuna emateko.	1 Hartzaileei eman beharreko erantzuna hobetzea: txostenak, bisitak, ...	Ikuskaritzaren txosten eta bisitak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.	Ikuskaritzaren txosten eta bisitak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.	Ikuskaritzaren txosten eta bisitak baloratzeko prozedurak diseinatu eta ezartzea eta berrikusi eta hobetzeko prestakuntza planifikatzea.
	2 Euskara erabiltzeko planaren jarduerak esanguratsuenak garatzea.	Euskara erabiltzeko planaren garapena eta jarraipena egiteko prozesua. Ikuskaritzaren prozesuetan sortutako dokumentazioaren hizkuntza gaurkotzea. IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzari ematen dizkion aukerak erabiltzea.	Euskara erabiltzeko planaren garapena eta jarraipena egiteko prozesua. Ikuskaritzaren prozesuetan sortutako dokumentazioaren hizkuntza gaurkotzea. IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzari ematen dizkion aukerak erabiltzea.	Euskara erabiltzeko planaren garapena eta jarraipena egiteko prozesua. Ikuskaritzaren prozesuetan sortutako dokumentazioaren hizkuntza gaurkotzea. IRALE programak Hezkuntza Ikuskaritzari ematen dizkion aukerak erabiltzea.
	3 Ikuskaritzaren antolaketa:	Kudeatzeko sistema gaurkotzea. Ikuskaritzaren kudeaketa-sistema UNE EN ISO 9001:2015 arau berrira egokitzea. Kudeatzeko sistemaren funtsezko azpiprozesuak selekzionatzea. Funtsezko azpiprozesuen arrisku-analisia. Egindako hausnarketa estrategikoaren arabera prozesu eta azpiprozesuak berrantolatzea.	Barne jakinarazpena: barne komunikaziorako prozesua berrikustea. Ikuskaritzaren zerbitzu-gutuna prestatzea. Prozesu eta azpiprozesuen antolamendu berrirako V92 aplikazio informatikoa gaurkotzea. Autoebaluazio-zerbitzua erabiltzea (EFQM ereduaren arabera).	Barne jakinarazpena: barne komunikaziorako prozesua berrikustea. Ikuskaritzaren zerbitzu-gutuna prestatzea. Prozesu eta azpiprozesuen antolamendu berrirako V92 aplikazio informatikoa gaurkotzea. Autoebaluazio-zerbitzua erabiltzea (EFQM ereduaren arabera).



HELBURUA	OINARRIZKO ILDOA	17-18ko JARDUERAK	18-19ko JARDUERAK	19-20ko JARDUERAK
.- Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketa, prestakuntza eta haren jarduera aurrera eramateko prozesua hobetzea, hizkuntz normalkuntzako, kudeaketa-, berriztapen-, parte hartzeko eta antolaketa ebaluatzeko prozesuak sustatuz, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzuna emateko.	3 Ikuskaritzaren antolaketa:	Ikuskaritzarako LEPren deialdia Lanpostu hutsak betetzeko deialdiak eta ordezkogaien zerrendak.	Lanpostu hutsak betetzeko deialdiak eta ordezkogaien zerrendak.	Lanpostu hutsak betetzeko deialdiak eta ordezkogaien zerrendak.
	4 Ikuskari-funtzioaren ebaluazioa.	Prozedura zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei aplikatzea. Ikuskari-funtzioaren gaitasunen matrizea gaurkotzea.	Zerbitzu-eginkizunetan ari diren ikuskariei prozedura gaurkotua aplikatzea.	Gaitasunen matrize berriarekin Ikuskaritzako plantila autoebaluatzea.
	5 Beste instituzio batzuekin lankidetzan aritzea eta dimentsio europarrean sakontzea.	Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko aliantzak ezartzea. Erasmus + proiektuaren bidez ezarritako harremanetan aurrera egitea. Euskal Autonomia Erkidegoko Ikuskaritza Standing International Conference of Inspectorates-era sartzeko eskaera egitea. Nazio eta nazioarte mailako gertakizunetan eta Erasmus + proiektuetan parte hartzea.	Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko jarduerak aurrera eramatea. Nazio eta nazioarte mailako gertakizunetan eta Erasmus + proiektuetan parte hartzea.	Beste ikuskaritza eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko jarduerak aurrera eramatea. Nazio eta nazioarte mailako gertakizunetan eta Erasmus + proiektuetan parte hartzea.
	6 Berriztapena zaintzea.	Erabakiak errazago hartzeko gertakizun desberdinetan parte hartuz lortutako informazioaren analisisa. Antzeko ezaugarriak dituzten beste instituzio batzuekin konparazioak egitea. Aurre egin behar zaien arrisku eta aukerak zehaztea.	Erabakiak errazago hartzeko gertakizun desberdinetan parte hartuz lortutako informazioaren analisisa. Antzeko ezaugarriak dituzten beste instituzio batzuekin konparazioak egitea. Arrisku eta aukerei aurre egiteko neurriak planifikatzea.	Erabakiak errazago hartzeko gertakizun desberdinetan parte hartuz lortutako informazioaren analisisa. Antzeko ezaugarriak dituzten beste instituzio batzuekin konparazioak egitea. Planifikatutako neurriak inplementatzea.